

EUSKARAREN BATASUNERAKO HEZKUNTZA-URRATSEN INGURUKO ZENBAIT GOGOETA

**Fito Rodriguez Bornaetxea
Pauli Davila Balsera**

Euskararen batasuna medio ikerketa batzuk plazaratzen ari baldin badira ere, gehienak hizkuntzalaritza, soziolinguistika edota historia dute abiapuntu nahiz helmuga.

Uztaro honetan, berriz, gure hizkuntzaren gizarte-eraikuntza modernoan horrenbesteko garrantzia duen euskararen batasuna ikuspegi diakronikoaz behatu nahi dugu. Hau da, euskararen hizkuntza literarioaren hedapenari so egin nahi diogu berarentzat funtsezkoena den berrekoizpen-mekanismoetatik begiraturik: heziketa, eta zehazkiago irakaskuntzatik bertatik, alegia.

Horrexegatik hemen eskaintzen dugun lan-bildumak gehiago joko luke hezkuntzaren historiaren alde ohizkoak dauzkagun hurbilketa ideologikoetara baino. Planteamendu berria, beraz, dagoeneko mende laurden trinkoa duen historia baterako, euskara batuarena hain zuzen.

Hastapenetan eta Paulo Iztuetaren eskutik, euskal kultura soziologikoki jorraturik izango da arlo eta espazio desberdinetan. Hauxe ardatza izanik eta Fito Rodriguez Bornaetxeak kudeaturik, euskararen estandarizazioaren berri modu labur baina trinkoan ematen saiatuko gara.

Aipatutako oinarri haietatik euskararen hedapena ulertu ahal izateko eredu berria eraikitzerik dagoelakoan Pauli Davilak landutako hurbilpen metodologikoa jorratuko dugu. Hau da, euskal alfabetatzearen gakoak antzemateko alde batetik hizkuntzaren gizarte-erabilerak bereiztuko ditugu, bestetik alfabetakuntzaren ereduak, eta azkenik, guzti honekin bat agertzen zaizkigun ezaugarri ideologiko-politikoei ere so egingo diegu.

Aipatutako ereduak garatzerakoan euskararen gizarte-erabilerak ikertuko dizkigu Ana Eizagirrek. Helduen alfabetatze prozedurak, ostera, Iñaki Zabaleta Imazen eskutik etorriko zaizkigu. Ikastolen sorrera eta beren lehenengo urratsak Idoia Fernandezek aztertuko ditu. Dena dela, hau guzti hau gehien batean frankismo garaian ikerturik izaten bada ere, egungo euskal ereduak nahiz euskal irakaskuntzaren ardatzak bai komunitate autonomoan baita Nafarroan ere Luismari Nayak egindako lan-bildumari esker antzeman daitezke.

Hala eta guztiz, hutsuneak azaltzen baldin badira, edota zenbait akats nabarmenduko balira... gaiari emandako tratamendu berriagatik izan daitekeelakoan gaude. Edozein modutan ere hemen eskainitakoa, askotan hau adieraztea topikotzat hartua izan arren, ikuspegi honetatik, hezkuntzaren historiatik hain zuzen, egindako lehenengo hurbilpena dugu. Bada, denboraren poderioz eta irakurleen kritikaz osatzeko ikerlana alegia. Beraz, eta besterik gabe, hona hemen.